

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure produktua, lehen esan dugun bezela, pertsona elbarritu eta adinekoentzako izango da batez ere, beraz, haiei begira diseina eta eraikiko ditugu. Goizero haientzako borroka bat izan dezakeena, beste pertsonentzako ohea egitea den gauza erres hortan bihurtzeko.

Beste aldetik, edozein pertsonak eros dezakela esan dugu, hau da, perezoetatik hasita, goizero denbora galtzeko asmorik ez daukatenen pertsona moteta.

Proiektu hau, labur esanda, bizikletaren erabilera sustatzeko sortu dugu. Jakina da kutsadura maila dezente igo dela azken mende honetan, eta are gehiago azken hamarkadan, batez ere hiri mailan. Hainbatetan proposatutako eta aplikatzen saiatutako kutsadura jaisteko proketuek ez dute eragin nahikoa izan, eta garatu zein garatzeko bidean dauden herrialdeetako fabriken poluzio emisioa ez da behar bezain beste erregultau. Baina horretaz gainera eta, kutsadura gehien sortzen duena garraiobideak dira. Arazo honek hiritarren osasuna astindu du batez ere, ondoezak eta zenbaitetan gaixotasunak sortuz.

Problema hau askatzeko modurik egokiena kutsatzen ez dutena garraiobideak erabiltzea da. Beraz, lehen esan dugun bezala, gure asmoa bizikletaren erabilpena sustatzea da. Inkesta luze baten ondoren, nerabeetatik hasita berrogei urte arteko pertsona gehienek iritziz, bizikleta ez erabiltzeko arrazoi nagusia erabili ondoren hura gordetzeak dakarren arazoa da. Izan ere, alde batetik pisutsua da eta bestetik, toki asko betetzen du. Horregatik, gure proposamena arina eta malgua den bizikleta bat sortzea da. Alde batetik malgua izango da erabili eta gero jaso eta gorde ahal izateko. Gero sakonduko dugun bezala, bizikletak tolesdura puntu batzuk

izango ditu. Horrela, ibiltzerako orduan ohiko tamaina izango duen arren, txikitzerakoan tamaina erdia baino txikiagoa izango du. Beste aldetik, eta puntu garrantzitsuenetako bat dena, arina izan behar da. Jasotzerakoan inolako enbarazu edo nekerik gabe garraiatu ahal izateko.

Baina, hala ere, proposamen hau azaltzean sortutako galdera nagusia diruaren arazoa izan daiteke. Gure proiektua, batez ere, jende gaztearentzat dago zuzenduta, eta hauek ez dute normalean, dituzten gastu guztiek ekarritako aurrekontu estuarekin, luxuzko tramankulak erosteko aukerarik. Berz, guk eskaintzen dugun bizikletaren prezioa ez da bizikleta normalena baino altuagoa izango. Are gehiago, materialak berziklatuak izanik, prezioa baxuagoa izaten saiatuko gara eta beraz, gazte hauentzat askoz eskuragarriagoa.

Arrazoi berdinetatik, hau da, gure produktua gazteentzat zuzenduta egoteagatik, diseinu inobadorea edukitzeaz aparte itxura berri eta polit bat eman behar zaio. Hori ere, gure proiektua sortzeko eta diseinatzerako orduan kontuan hartuko dugu.

Bizikleta hau, lehen esan dugun bezala, besteen antzekoa izanik ibiltzerako orduan, besteak bezain segurua eta eraginkorra izango da. Izan ere, nahiz bizikleta jasotzerakoan tolestu behar izan, erabiltzerakoan, arina izateaz gainera indartsua eta finkoa izango da.